



FORU AGINDUA

Nekazaritza Saila
Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua
ADM1 2025 1153

Onespena ematea estatuan eta hirugarren herrialdeetan Arabako Errioxa sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzetan parte hartzeko interesa dagoela adierazteko deialdiari.

Arabako Errioxa nazioartean aitortutako mahastizaintza eta ardogintza eskualdea da, hango ardoen kalitateagatik eta paisaiaren berezitasunagatik, eta bi muga naturalen artean banatzen da: Toloñoko mendilerroa eta Ebro ibaia. Ardatz horien bidez, 13.000 hektarea mahasti baino gehiago landatzen dira mosaiko bat bailiran, eskualdea osatzen duten herrietako bakoitzaren bereizgarri den *terroir*aren eragin argia duten ardo ugari sortzeko.

Berezkoa duen *terroir* horrek buztinezko lurzoru karetsua du bereizgarri, eta eskualde osoan zehar hedatzen da, baina, zalantzarik gabe, adierazpen desberdina du Arabako Errioxako herri eta paraje bakoitzean. *Terroir* horrek berezko tipikotasuna ematen die Arabako Errioxako ardoei, eta, hango klimatologiarekin batera, aparteko mahats kalitatea eskaintzen du. Horri esker, munduko ardo onenetako batzuk egin daitezke, nazioarteko gida ugariren arabera, non, urtero, Arabako Errioxako ardoak izaten baitira puntuaziorik onena lortzen dutenak.

Aniztasun horri esker, bai eta Arabako Errioxan 1.500 biñeroik baino gehiagok 26.000 esparru baino gehiagotan eta 230 upeltegi baino gehiagotan lantzen dituzten 13.000 mahasti hektareen ekoizpenaren atomizazioari esker ere, Arabako Errioxa mahastizaintza eta ardogintzako eskualde paregabe bihurtu da munduan. Eskualde horretan mahastizaintza eta ardogintzak eragina dute ingurumenean, eta hango herrien eta jendearen nortasun ikurra dira.

Hori dela eta, Nekazaritza Sailak, Arabako Errioxako ardoaren kontsumoa eskualdean mahastizaintza eta ardogintzako ekoizpenaren ardatz bultzatzaile gisa sustatzeko duen helburua betetze aldera, eta Arabako Lurralde Historikoko mahastizaintza eta ardogintzako sektorea hobetzen laguntzeko helburu orokorra betetze aldera, baliagarritzat jotzen du zerrenda bat egitea, zeinak bilduko baititu Arabako Foru Aldundia buru izango duten Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintzako proiektuak sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzetan parte hartzeko interesa adierazten duten eragile pribatu guztiak.

Administrazio publikoen ekintzan egon behar duten publikotasun, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen direla bermatzeko, Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintzako proiektuak sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzetan parte hartzeko



interesa izatearen adierazpenak aurkezteko sistema bat ezartzen da, honekin batera doan eranskinean garatzen diren oinarrien arabera.

Hala ere, ildo horretan aurkeztu diren inprimakiak informatzeko baino ez dira izango, ez dira inongo administrazio prozeduratan sartuko, eta ez dute inolako eskubiderik sortuko.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta bat etorriaz Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, zeinak aldatzen duen 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretua, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea estatuan eta hirugarren herrialdeetan Arabako Errioxa sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzetan parte hartzeko interesa dagoela adierazteko deialdiari, agindu honen I. eranskinean jasotako baldintzetan.

Bigarrena. Ebazpen honen II. eranskinean jasotako inprimakiaren bidez aurkeztu beharko da interesa izatearen adierazpena.

Gasteiz

Noemí Aguirre Quintana

Nekazaritza Saileko foru diputatua
Diputada Foral de Agricultura

David Fernández Sarabia

Nekazaritza zuzendaria
Director de Agricultura